

Anuntxi Arana

ANTROPOLOGOA ♦



GAIZKA IROZ

Orratzak

DIFERENTEA BAINA EZ BAKARRA, Espainia, abortatzeko eskubideari trabak ezartzen. AEBetan, Polonian, Suitzan... ere oztupoak hazten. Irlandan, hobekuntza ñimiñoa sartu dute abortua debekatzen duen legean, neska bat septizemiak hil ondoan. EBn sexu eta ugalketarako eskubideak bermatu nahi zituen Edite Estrelaren txostena egotzi du berrikitan Estrasburgoko Parlamentuak, eskumenak estatu bakoitzaren esku utziz.

Aurrerapenak ere egiten dira. Frantziako Estatuan, engoitik, abortua egin ahal izateko ez da beharrezkoa larritasun egoeraz hel egitea. Haatik, bertako feministek badakite lortu direnak oso erraz galtzen direla eta, hori gabe ere, oraingo egoera ez dela bikaina. *Planning familial*-ek gogorarazi du leku zenbaitetan konplikatu izan daitekeela abortatzea zentroen eskasiagatik, gainera haietarik batzuk ixten ari direla azken denbora hauetan, Italian legez. Emazteen eskubideen aldeko kolektiboak (*Collectif national pour les droits des femmes*), Espainian pentsa ezina zen atzerapausoa deitoratzearekin batera, ohartarazi du Frantzia ere ez dela holako arriskue-tatik kanpo, homosexualen ezkontzen aurkako manifestazioetan ageri diren indar atzerakoiak indartsuak baitira.

Ez da esana Gallardonek bere legea erraz esportatuko duela. Frantziako Gobernuaren bozeramaileak, Vallaud-Belkacem andereak, berehala adierazi zion gaitzespena

Baiki. Azken aste hauetan eskola publikoari eraso zaizkie “genero teoria” erakusten duelakoan. Manifestazio jendetsuak egiten dituzte, besteak beste abortuaren aurkako bat Parisen, zenbaitek arrosarioa eskuan zutela –Antsoingo klinika aurrean bezala– eta hantxe zen Baionako apezpikua, holakoetan aditua: iazko azaroan ere Washingtonen ageri zen, txapela jantzita, abortuak egiten dituen zentro baten aurrean otoitzen, *For life* mugimenduko kideekin.

Hala ere, ez da esana Gallardonek bere legea erraz esportatuko duela. Frantziako Gobernuaren bozeramaileak, Vallaud-Belkacem andereak, berehala adierazi zion gaitzespena, eta gero elkarren segidan etorri dira ihardukitzeak, Espainia-ko emazteentzako elkartasun mezuak: urtarilean manifestazioak Marseillan, Okzitaniako Tolosan, Bordelen eta Nantes-en; otsailaren 1ean Europako hiriburu askotan, Parisen eta beste hogeita hamar bat hiritan. Pankartetan galtzorrazak ageri dira berriaz, etxeko abortu klandestinoetako tresna septizemikoak, eta haien azpian idatzia: “Sekula ez gehiago holakorik!” Ba, arrosario-aleak ereinda galtzorrazak hozitzen badira, birziklatu beharko da antzina-ko slogan zaharra: “*Aparten els vostres rosaris dels nostres ovaris*”. ■



DANI BLANCO



Amets Arzallus



BERTSOLARIA

Gure andereñoak

“KULUNKA ari den sehaskari”, bertsotarako gai zaharra dirudi eta tai gabe berri-tzen ari da suprefeta. Zazpi aldiz kantatuko nion aurten, idatzi, mintzatu, eta hala ere ez da aski. Herritik urrun harra-patu nau auzi berri zaharrak, gure herri-tik zazpi hizkuntzatarako distantzian bai guttienez. Eta perspektiba bitxi horretatik gure andereño izanikoeekin oroitu naiz, eta ene kaiera zahar batean horiei idatziriko hitz batzuekin.

Ikastolan gu euskaratik gentozela erakutsi ziguten, baina euskara nondik zetorren ez genekiela. Hipotesietako bat zen

Afrika iparraldeko amazigharekin zuen ahaidetasuna. Amazigh hitzak “gizon librea” esan nahi omen du, eta amazighek beren hizkuntzari “tamazight” esaten diote, forma femeninoa emanez esapidari, hizkuntza beraz, emakume libre bat da. Euskarak ez du femininorik eta maskulinorik bereizten hitzen azaleran, baina gure ikastola andereñoak bete zegoen. Eta nik bizitza osoan maiteko ditut gure andereño izan ziren haiek, ama hizkuntza bat balitz bezala erakutsi zigutelako libertatea. ■

